

IIP mota ezberdinen irakats aukerei buruzko zenbait argibide

Ikertzaileek irakaskuntzan parte hartzeko aukerei buruzko araudia aldatuz joan denez eta kontratu mota askotxo daudenez, zalantzak sortzen dira maiz. Hori dela eta, egokia dirudi Irakasle eta Ikertzaile moten irakats ahalmenei eta aukerei buruzko laburpen bat egiteak.

Badaude GAURren irakats ahalmen gordin ez-nulua (IAGd>0) duten irakasle eta ikertzaileak, eta horiek, dudarik gabe, irakasteko gaitasuna dute; baita betebeharra ere. Ohiko irakasle motak alde batera utzita, GAURrek IIP hauei aitortzen die irakats ahalmen jakin bat: Ikertzaile Doktore Iraunkorrei (IDP/IKD), laguntzaileei (AY/UL), Ikertzaile Gorenei (IDG/IKG) eta Irakurleei (LC/IRK).

Bestalde, GAURren badaude irakats ahalmen gordin nulurekin (IAGd = 0) agertzen diren hainbat irakasle eta ikertzaile mota. Haien artean lau multzo nagusi bereiz daitezke:

-Eskolak emateko aukera guztiak, mugarik gabe, dituzten irakasle bereziak: emerituak (EU/UIE), unibertsitate bisitariak (VU/UIB) eta UPV/EHUrako atxikituriko ikerbasque bisitariak (VI/IKB).

-2011ko Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren 14/2011. Legearen 21. Artikuluaren bitarteko kontratua duten doktore-aurreko ikertzaileak (ZL-21. art.). Hauek normalean irakaskuntzan lagundu¹ dezakete, zenbait baldintza betetzen eta ordu-kopuru maximo jakin batekin (ohikoena, 60 h/ikasturte). Besteak beste, hauek dira: MECeko doktore-aurreko formakuntzako ikertzaileak (IPFM), Eusko Jaurlaritzako IPFak (IPFG), 2014ko deialdiko UPV/EHUko IPFak (IPU4), eta abar.

-Aurrekoen antzera, badaude irakaskuntzan laguntzeko² Aukera ordu kopuru jakin batera arte (ohikoena, 80 h/ikasturte), 14/2011 Legearen 22. Artikuluaren babesean kontratatutako ikertzaile doktoreek. Ikertzaile horien artean honako hauek daude: Zientziaren Legeko Ikertzaile Doktoreak (IDLK), Eusko Jaurlaritzako Ikertzaile Doktoreak (INGV), Juan de la Cierva ikertzaileak (IJC), eta abar.

-Azkenik, badaude lan edo zerbitzu jakin baterako kontratatutako ikertzaileak, PIC deitu ohi direnak (Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 15.1 artikuluz, LE-15.1 art., kontratatutakoak). Hauek ezin dute irakaskuntzan parte hartu³. Hori doktoreentzat (INVU) zein ez-doktoreentzat (INVE) aplikatzen da.

Komeni da, halaber, beste hiru kontu zehaztea:

1. Doktore-aurreko (formakuntzako) ikertzaileek (ZL-21art.) Gradu irakaskuntzan lagundu dezakete. **Laguntzeak** esan nahi du formatzen ari den ikertzaileak ez duela bere gain hartuko irakaskuntzako ardura nagusia ez eta kalifikatzearena ere. Hau da, eskolak eman ditzake, baina berak ezin du irakasgaiaren pisu nagusia eraman edo aktak sinatu. Ikertzaile hauek, gainera, irakasle nagusiarekin paraleloan ere eman dezakete klasea (ikasgelan batera jardun) talde txikien kasuan (laborategian edo ordenagailu praktikan kasu). Hala bada, saio horietarako GAURrek irakats enkargu bikoitza jasoko du, eta lana bi pertsoneri aitortuko zaie.
2. Zientzia eta Teknologiaren Sistemaren sartzeko kontratua duten Ikertzaile Doktoreak (ZL-22.art) Graduetako eta Masterretako irakaskuntzan lagun dezakete. Berriz ere, **laguntzeak** esan nahi du irakasleak ezin duela bere gain hartu irakasgaiaren ardura nagusia edo aktak sinatzearena. GRALak eta MALak zuzendu ditzake, baina betiere beste irakasle batekin batera. Lan horiek guztiak, zer esanik ez, Irakats-Enkargu gisa jasoko dira GAURren.
3. Esan dugunez, INVU eta INVE kontratuak (LE-15.1 art) dituztenek ezin dute klaserik eman zeren eta haien kontratuaren helburu bakarra lan edo zerbitzu jakin bat egitea baita (irakats jardunik gabekoa), baina haien kontratuak bestelako irakasle kontratuekin (adib. LIU) bateragarriak izaten dira.

Leioan, 2017ko ekaina